

# Liburugintzaren egoera 1983-1984

Julen Lizundia

Idea orokor batera makurtzeko eta ikuspegi zabal eta argiagoko bat eskaintzeko asmoz, euskal liburugintzaren produkzioa zenbait ataletan banatuko dugu:

- Literatura helduentzat
- Haur Literatura
- Komikia
- Testuliburua eta liburu teknikoa

- Saioa

1.- *Literatura helduentzat.*

Azken urte hauetan liburu moe-

ta honek gorakada berria ezagutu du. 70 inguruko gorakada eta kalitate haren ondoren, aldapa behera zirudienak burua jasotzen du behin berriro. Eta iragan urtearen panoramikan literaturako liburu zerrenda interesgarria kaleratu da, zerrendari kalitatea ere erantsi behar zaiolarik kasu askotan. Eta alor honetan, ipuinen mundua dugu jenerorik landuena. Batzuk ukaezinezko kalitatez jantziak, aipatu behar dira Anjel Lertxundi, Josemari Iturralde, Joseba Sarrionandia, Arantxa Urretavizcaya edo Laura Mintegirenak... Izen berriak eta lehendik ere aski ezagunak zitzaizkigun beste hainbat izen. Iazko Durangoko Azokak sorpresarik nagusiena, hain zuzen, izen berrien plazaratzearen andana luzea suertatu zen.

Alor honetan herri literatura ere kontutan hartuko bagenu, Antonio Zabalak egoskor eta etengabe kaleratzen duen «Auspoa» saila ezingo dugu inolaz ere ahaztu.

2.- Azken urtetan hasitako prozesuari jarraituz, *haur literaturako* liburuak ugartzen doaz. Itzulpen asko aurki dezakegu liburudendetan eta espainiar argitaletxeak ere hasiak dira jadanik beren obrak euskarara itzultzen. Honek duen garrantzia ukatu gabe ere, gehiago arduratzen gaitu langintza orijinalak, eta esan behar da langintza honek posible duela bi sail garrantzitsu mantentzea, «Auskalo» eta «Sor». Sarritan helduentzat ere idazten dutenak dira langintza honetara ere emanak, Bernardo Atxaga edo Anjel Lertxundiren kasutan bezala. Beste zenbaitetan, egile espezializatuekin egiten dugu topo: Josan Ormazabal, Asun Landa, Mertxe Ezeiza...

Baina ezin dugu alor honetan ilustrazioaren mundua baztertu, testua eta marrazkia osagarri gertatzen bait dira gehienetan. Eta orain ez gara Asun Balzola, Elena Gonzalez, Ion Zabaleta, Antton Olariaga edo Juan Karlos Eguillor-en maila deskubritzen hasiko.

3.- *Komikiaren* mundua ere garapen garrantzitsua ezagutzen ari da azken urte hauetan. Gorpuztu da jenero hau indartu nahi lukeen marrazkilarien taldea eta, el-



Julen Lizundia  
«Erein» argitaletxeko arduraduna da.

kar lan honen fruitu bezala, beste hizkuntzetera itzultzen hasiak dira Gregorio Muro-ren gidoiak eta Daniel Redondo edo Miguel Berzosa bezalako marrazkilarien lanak. Komiki honen garapenean zer ikusteko haundia dute «Erein» eta «Habekomik»ek.


Haurren komikia, berriz, «Ipurbeltz» eta «Kili-kili»ren ingurutan polarizaturik dago bereziki.

4.- *Testu liburuak* ere boom

garrantzitsua ezagutu du azken urteotan, merkatuko —eskolako— eskabideei erantzunez. Eusko Jaurlaritzaren programakuntza berrituek probokatu dute, neurri haundi batean. bultzada hau, eta egun bada Euskal Herrian langintza honi lotuta-

## 1984eko liburugintzaz ohar laburrak

Joan Mari Torrealdai



Joan Mari Torrealdai  
soziologoa da, euskal liburugintzarenikerla-

1984eko liburu-produkzioaren balantzea azaroaren hasieran egitea inolaz ere ez da posible. Balantzeari ezin dakioke hurrik eman ere, gezurra badirudi ere. Euskal produkzioaren erritmoa oso berezia bait da. Durangoko Azokak osatzen eta burutzen du produkzioaren urtea. Aurten bertan zer ari den gertatzen ikustea aski da horretaz jabetzeko: 500en bat liburu omen dira aurten ateratzekoak.

500 dira behintzat Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntzetara jo dutenak. Eman dezagun bat edo beste, hitza jan eta, atera gabe gelditzen dela. Halere, pentsatzekoa da zifra horretara hurbilduko dela produkzioa. Azoka nagusi horretarako hilabete bat falta denean, urteko hamar hilabete igaro direnean, 150en bat liburu bakarrik publikatu dela jakitea ez al da harriztekoa?

Euskal liburugintzaren berezitasun hau azpimarratuz adierazi nahi dudana beste hau ere bada, alegia, urte-sasoi honetan oraino goiz dela, goizegi, liburuaren produkzioaz balantzea ganorazkorik egin ahal izateko. Dagoenaz mintza gaitzke, datozkeenak gerorako utziz, ba.

Eta dagoenaz zer esan?

Produkzio hori gaien arabera multzotan jarri eta berehala konturatzen da bat liburugintzak lehengo lepotik duela burua. Aurten ere, inolako zalantzarik gabe, irakaskuntz liburuak du nagusitasun nabarmena. Sail hori sendoagotuz doa: testu,

ko lan talde indartsuak, zenbait alorretako materiala eskainiz: Hizkuntza, Matematika, Natur eta Giza Zientziak...

Hauekin batera aipatu behar dira zenbait liburu tekniko ere, baina hauek bizitza komertzial propioa izan ezin dutenez, subentzioei esker plazaratzen dira gehienetan.

5.- *Saiorearen* alorra da guttien garatzen ari dena. Izan zuen bere une egokia 70 urte inguru haietan, baina 1975z gerotik beherakada nabaria ezagutu izan du.

Baina garrantzitsua da, perspektiba orokor batean, gure saioez kontatzea, gure pentsamenduzko lanak kaleratzea. Alor honetan imajinazio lana egin beharra dago sail hau nola burutu, indartu eta plazaratu jakin ahal izateko.

metodo eta gisako liburuak geror eta txukunago, landuago eta ugariago aurkitzen ditugu. Esfortzu hoberena hortik doan seinale. Lekuko on ditugu *Erein-en* «Aurkitzen», «Arakutzen», «Ezkila», «Tipitaki» sailak. GIEren «Baga-Biga» eta «Jeannot metodo» sailak edo eta *Elkar-en* «Aise» eta besteak. Euskararen irakaskuntzaren munduan aipagarri dira *Habe*-ren lan teorikoak eta praktikoak. Sail berean aipa-

men berezia merezi du J.A. Letamendiaren «Bakarka» metodoak. Euskarazko irakaskuntzaren alorrera itzulirik, pozgarria da zera. ikustea gero eta maila goragokoetara eta gehiagotara ari dela hedatzen euskara. Langintza horretan diardute *Elhuyar*-ek eta UZEIk adibidez. Dozenatik gora liburu atera ditu *Elhuyar*-ek aurten, nahiz Fisikaz, Kimikaz, Matematikaz, nahiz Informatikaz. Teknologiaz. Lan bikaina eta arnasa handikoa da UZEIren Filosofia, Psikologia eta Artearen Historiako testuetan ageri dena.

Begien bistakoa da irakaskuntzako langaien prestakuntza profesionalduz doala. Eta beste hainbeste materiale hauen argitaraketa. Editoriale komertzialei dagokienez, ia bere osoan *Elkar*-ek eta *Erein*-ek egiten dute lan hori. Gauza beretsua gertatzen da honen inguruko produkzioan ere: irakurgaitan, haurren eta gaztetxoan literaturan, alegia. Egia esan, eremu honetan argitaletxe gehiagok ere parte hartzen

du, Estatu mailakoak ere bai, hala nola, Argos Vergara, Anaya. Halere esparru honetan jaun eta nagusi *Elkar* da, sail ugariz: Zipristin, Txapula, Tintin, Teo, Perkax, Itzul, Sor.

Produkzioaren bigarren multzoa helduen literaturari dagokiona da, urtero bezala. Liburu gutxi —gutxiegi— atera da sail honetan. Durangon etorriko da kolpea, us-te denez. Izan ere, literatur liburu batek ez du irten-egunik, baina irakaskuntzakoak, bai, ikasturtearen hasiera. Hori pasa delarik, literatur liburuaren txanda da orain. Ea hala den egiaz eta benetan! Oraindoino-koetan bertsoari lanak ditugu hiru, eta saria jasorikoak bost. Bina liburuko bi aut-ore ere baditugu, Patri Urkizu eta Pablo Sastre. Seinalatzekoa da *Elkar-en* Litera-tura sailaren abiada prometagarria, eus-kal-erdal literaturetako bost liburu atera bait dituzte aurten bertan.


Obretara mugatuz, hiruzpalau aipatu nahi nituzke: P. Urkizuren «Nola Kurtsaal berria suntsitu zen», M. Onaindiaren «Gilen Garateako Batxilera», Beltzaren «Zaz-pigarren alaba» eta iruzkin hau egiten na-goela jaso dudak K. Izagirreraren «Euzkadi merezi zuten».

Sail nagusitxoena aipatu (ez epaitu) di-tut honekin. Bat gehiago eranstekotan eus-kararen eta euskal literaturaren azterketa-ren inguruko egingo nuke, eta hemen batipat P. Salabururen, L.M. Mujikaren eta Itzultzaile-Eskolaren binakako lanak.

Eta bukatzeko, errepikatzearekin batean azpimarra ditzadan gure liburugintzaren trazo batzu. Bat: euskal liburuaren argita-raketa desorekatuegia da, kolpeka egiten dena. Bi: gero eta profesionaltasun hobea antzeman daiteke editorialen lanean, bati-pat irakaskuntzari begirakoan. Hiru: lite-ratur sailean bada literato gazteen lan pro-metagarriarik, eta bada idazle helduagoen lan helduagorik. Lau: Baina...


Baina produkzio honek badu hutsunerik eta akatsik. Hutsuneak: saio liburuaren es-kasia, kultur liburuaren gabezia, etab. Akatsak: joera utilitarista gehiegia, liburu linguistikoko-pedagogikoaren nagusitasun nabarmenegia, gaien arteko desoreka.

Zer besterik gerta dakiguke merkatu-le-gera gaudelarik? Noizko liburugintzaren zorieko plangintza hori?



## *Euskal liburuak, gero eta ugariagoak*

Imanol Tapia



Imanol Tapia «Elkar» argitaletxeko ardura-duna da.

1984 urtean, aurreko urteetan bezala, gorakada nabarmena somatu da (datu zehatz orokorrik ez daukagu oraindik) kopuruari dagokionez, euskal liburuaren alorrean.

Ugaltze horretan, neurri handi batean diru-laguntzak izan dira ziztagarri: argitaletxe batzuren kasuan, euskal liburuak ateratzea posible izan zaielako, eta bestetan bere produkzioa ugari-tzeko balio duelako.

Liburugintzaren barruan ugalben hau gehien nabari izan den alorra testugintza-ren eta literaturarena izan da, hain zuzen ere:

— Lehen kasuan, izugarritzko indarra egiten ari da bai argitaletxeen aldetik, eta baita alor ezberdinetan dabilzatan taldeen aldetik, irakaskintza munduko testu-beharrak asetzen joateko.

— Literatura alorrean, lehen urte bukaer-an, Durangoko Ferian aurkeztutako hainbat bilduma berriri jarraipena eman zaio; aurten ere, beste zenbait sortu delarik. Hemen ageri den akatsik nabarmenena zera da: aurreko urteetan bezala, izugarritzko garrantzia ematen zaio Durangoko Feriari, gehiegi, eta errez uler daiteke zergatia. Alde batetik, ohitura handia dago Durango-ko Ferian liburuak erosteko, eta bestalde-tik Gabon egunak guztiz aproposak dira

salmentarako.

Baina horrela ez da inoiz irakurtzeko ohitura bat sortuko, horrela ez da posible. egunkarrietan, astekarrietan kritikarik egitea ez bagara hilabetero hiru edo lau liburu plazaratzeko gai.

Haur eta gazteen munduan, egungo produkzioa nahiko emankorra da, eta aipatzekoa da Estatu-ko zenbait argitaletxek bere ipuinik ezagunenak espainolez gain, katalanez, gailgez eta euskaraz ere argitaratzen dituztela.

Gainbegirada labur honen ondoren, zenbait ohar eta kritika ere egin beharrean gaude.

Diru-laguntzak direla eta, arrisku bat argi ikusten da gaur egun: zenbait liburu argitaratzerakoan kalitateak baino askoz pisu handiagoa izatea liburu argitaratze-gatik jaso behar den laguntzak berak.

Bestalde, desorganizazio nabaria izan da Eusko Jaurlaritzaren aldetik, beka eta sari-rietan, inork ez bait daki idazleak argita-letxeari kobratu behar ote dion, etab.

Oker jokatzeko iruditzen zaigu ere, itzul-penari merezi duen laguntza ez ematea.